



Nagusia 4
48970 BASAURI
Tel.: 94 466 64 10
Faxa: 94 466 64 09
e-posta: rcia_mayores@basauri.eus

GALDERA OHIKOENAK

ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEEN LAN-POLTSA ERATZEA, BASAURIKO UDALAREN «ETXE MAITIA» ADINEKOEN EGOITZAN ALDI BATERAKO BEHARRIZANEI AURRE EGITEKO

Deialdiaren xedea

Erizaintzako laguntzaileen lan-poltsa eratzea, Udal Egoitzan aldi baterako langile-beharrizanei aurre egiteko.

Izangaien betebeharrak

Lanbide-heziketako erizaintzako zaintza osagarrien teknikari titulua, mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko teknikari titulua, gizarte-erakundeetan dauden mendekoei arreta soziosanitarioa emateko lanbide-gaitasun ziurtagiria edota horien parekoak edukitzea.

Izangaiak onartzea

Eskabide normalizatua aurkeztu behar dute Basauriko Udalean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ): Kareaga Goikoa 52, eta Pagasarri (San Migel), Basauri 48970. Internetetik ere aurkeztu ahal dute eskabidea, Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus).

Eskabideak aurkezteko epea

20 egun natural, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus) eta erakunde autonomoaren iragarki-taulan (Nagusia 4, Basauri) argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Izangaiek, eskabidean, adierazi beharko dute deialdiaren bigarren oinarrian jasotako ezaugarri guzti-guztiak betetzen dituztela (eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data oinarri hartuta, betiere).

Esandakoaz gain, honako hauek jaso beharko dituzte:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.
- b) Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.



Nagusia 4
48970 BASAURI
Tel.: 94 466 64 10
Faxa: 94 466 64 09
e-posta: rcia_mayores@basauri.eus

- c) Desgaitasunak dituztenek beren egoeraren berri eman beharko dute eskabidean, eta, hala badagokio, adierazi beharko dute hautaprobak egiteko zein arrazoizko denbora eta baliabide-egokitzapen eta -doikuntza behar dituzten.
- d) Aurkeztutako merezimenduen zerrenda.

Merezimenduen egiaztagiriak bakar-bakarrik aurkeztuko dira oposizio-aldia amaitu eta gero. Hala ezartzen du seigarren oinarriak.

Hautapen-prozesua

Oposizio-lehiaketa sistema.

Oposizio-aldia

Nahitaezkoa eta baztertzaila den proba bat.

Oinarrietako gai-zerrendaren zati orokor eta espezifikoari buruzko galdera-sorta (I. eta II. eranskinak). Galdera bakoitzak lau erantzun izango ditu, aukeran.

Lehiaketa-aldia

Oposizio-aldia gainditu duten izangaiek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute eskabidean adierazitako merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko. Epe hori zenbatzen hasiko da Epaimahaiak oposizio-aldia gainditu duten izangaiei, eta haiek lortutako puntuen zerrenda erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean argitaratzen duen dataren biharamunean.

Interesdunek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Hizkuntza Eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia, merezimendu gisa konputatua izan dadin, seigarren oinarrian ezarritakoarekin bat.
- Administrazio publikoan antzeko zereginak dituzten postuetan lan egin izandako denboraren egiaztagiriaren fotokopia. Postuaren kategoria, eta, hala badagokio, espezialitatea, izendapen-mota eta lan egin izandako aldiak ere jasoko dira egiaztagirian, merezimendu gisa konputatuak izan daitezen, seigarren oinarrian ezarritakoarekin bat.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitzaren egiaztagiriaren fotokopia, eta antzeko zereginak zituzten lanpostuen lan-kontratuenak, merezimendu gisa konputatuak izan daitezen, seigarren oinarrian ezarritakoarekin bat.

Epaimahaiak aipatutako merezimenduak balioztatuko ditu, baldin eta eskabideak aurkezteko epe barruan aurkeztuak izan badira eta behar bezala egiaztatuta badaude, oinarriotan xedatutakoaren arabera.



Nagusia 4
48970 BASAURI
Tel.: 94 466 64 10
Faxe: 94 466 64 09
e-posta: rcia_mayores@basauri.eus

1.- Lan-eskarmentua.

- Administrazioan aritu izana egiaztatzeko, dagokion erakundeak lan egin izandako denborari buruz emandako egiaztagiria aurkeztuko da. Bertan, kategoria, espezialitatea (hala badagokio), izendapen-mota eta lan egin izandako aldiak jasoko dira.
- Eremu pribatuan edo itunduan lan egin izandako denbora egiaztatzeko, berriz, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitza eta kontratuen kopiak aurkeztu beharko dira.

2.- Euskaraz jakitea.

Ez danahitaezkoa izango, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako salbu.

Euskararen ezagutza balioztatuko da euskararen ezagutza egiaztatzeko titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzen dituen azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak xedatutakoaren arabera; eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera.